




# HAURRESKOLAK PARTZUERGOA

## EGOERAREN AZTERKETA



**PARTZUERGOA: Azken urteetako matrikulazioaren bilakaera:**

Haurreskolak Partzuergoan azken urteetan izandako matrikulazio datuak aztertzerako orduan, kontutan hartu behar dugun lehen erreferentzia, ELAk 2014 urtean aurkeztu zuen matrikulazioaren beherakada baieztatzen zuen txostena da. Jarraian txosten haren laburpen bat egiten saiatuko gara<sup>(1)</sup>. Azterketa honen arabera, argi eta garbi ikusten zen, 2012-2014 urteen artean batz bestea, haur kopuruaren %20ko jaitsiera bat eman zela matrikulazio datuetan.



Datuak, lurraldeka sailkatuz gero, nabarmena zen, beherakada hau 3 probintzietan mantentzen zela:

	2012	2014	DIFERENTZIA	%
ARABA	1.252	1.033	-219	-%17
BIZKAIA	2.475	2.010	-465	-%19
GIPUZKOA	2.250	1.712	-538	-%24
EAE	5.977	4.755	-1.222	-%20

Beherakada honen **arrazoiak** azaltzerako orduan, ELAk honako hauek nabarmentzen zituen:

- Haurreskolak Partzuergoan eta Eusko Jaurlaritzan, 0-2 etapan garatzen ari zen politika ez-nahikoa. Politika hauek ez zuten Hezkuntza Proiektuaren garapena posible egingo zuen inbertsio eta baliabiderik bermatzen.
- 5 ordutik gora matrikulaturik zeuden familien gehiengoak, 208 € ordaindu behar izatea, ez zegoen familia guztien esku.
- Azken hamarkadetak datuen baitan, Eusko Jaurlaritzak, Hezkuntza aurrekontuan, Europako herrialde garatuenek, batz bestea bideratzen zutena baino 1,1 puntu gutxiago bideratzen zituen (proportzioan 733 miloi euro gutxiago).
- Matrikulazio beherakada honek, behin behineko lanpostuak desegin, LEP arteko kontratu zuten langileak mugitu eta zenbait haurreskola istea ekarri zuen. Gogoratu behar dugu, plantilaren behin-behinekotasun tasa onartezina zela garai hartan. (%30a LEP arteko kontratuak eta ordezkioak gehituta %40a).
- **Ondorioa:** Gure hezkuntza sistemak, hutsune handia dauka 0 eta 2 urteko tartean, eta murrizketak areagotu egin dute egoera. Gure herrian, oraindik ez dago bermatuta etapa honetako haurren heziketa eta unibertsala eta doakoa izateko oso urruti dago. Horrez gain, matrikulazioaren beherakadak, langile lan baldintzetan eragin zuzena dauka lanpostuen desagerpena eta haurreskolen itxiera eraginez.

<sup>(1)</sup> Datuen jatorria: Haurreskolak Partzuergoan.

## HAURRESKOLAK PARTZUERGOA

– Egoera honi aurre egiteko ELAk proposatzen zuen **alternatiba** ondorengoa zen:

“Haurreskolak, zerbitzu publiko diren heinean, benetan unibertsal eta doakoak izan daitezzen eta matrikulazioaren beherakada honi aurre egiteko, zera proposatzen du ELAk: **3 urtetan haurreskolak doan izatea eta horretarako beharrezkoak diren baliabideak 2015eko Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuetan sartzea.**

ELAk matrikulazio kuotak errentaren arabera izatea proposatzen du, baina soilik behin-behinean, modu progresiboan doakoak izan arte. Zehazki, gure proposamenean, 2017tik aurrera haurreskolak, gainerako oinarriko hezkuntza sistemaren moduan, doakoak izatea eskatzen dugu”.

	<b>28.960 € errentaren azpitik dutenek</b>	<b>28.960,01 €tik 41.850 € bitartean</b>	<b>41.850,01 €tik gora dutenek</b>
2014. urtean	Kuota doan	Gaur egungo kuotaren %50	Gaur egungo kuotaren %75
2015. urtean	Kuota doan	Kuota doan	Gaur egungo kuotaren %50
2016. urtean	Kuota doan	Kuota doan	Kuota doan

5 urte pasa dira, ELAk egoeraren azterketa hau egin zuenetik. Jarraian, Eusko Jaurlaritzak tarte horretan hartu dituen neurriak eta matrikulazioan izan duten eragin aztertuko dugu.

Hartu diren **neurriak**:

– Kuota sistema, familia unitateek duten errenta datuen arabera egokitu zen, errenta estandarizatuaren dekretua kontutan hartuz. Sistema honen arabera, 3 kuota tarte berri ezarri ziren:

<b>Kuota tarte</b>	<b>Errenta estandarizatuaren mailak</b>	<b>8 orduko kuota</b>	<b>5 orduko kuota</b>	<b>Egokitzapen hilabetearen kuota</b>
1	≤ 10.000 €	118 €	91 €	91 €
2	10.000 eta 15.000 € artekoa	180 €	140 €	140 €
3	≥ 15.000 €	208 €	160 €	160 €

**2019/01/01etik aurrera:**

– 18.000 € baino gutxiagoko errentak dituzten familiei (bien zerga oinarri orokorrak + bien PFEZaren aurkezpenaren zerga oinarriak), 0 kuota tarte edo doako kuota aplikatuko zaie.

<b>Kuota tarte</b>	<b>Irabaziak (zerga-oinarri orokorrak + PFEZren aurrezpenaren zerga-oinarriak)</b>	<b>8 orduko kuota</b>	<b>5 orduko kuota</b>	<b>Egokitzapen hilabetearen kuota</b>
0	< 18.000	0 €	0 €	0 €

– Erditze anitzeko kasuetan edo haurreskolan anai-arrebaren bat edo gehiagorekin kointzidituz gero, bigarren edo hurrengo anai-arrebek doako kuota izango lukete.

– Familiek matrikula burutu aurretik ordaintzen zuten 91 €ko aurretiko kuota desagertu zen.

– Haurreskola txikietan, 8 orduko zerbitzua eskaintzeko erabakia hartu zen, matrikulatuta zegoen haur kopurua kontutan hartu gabe.

**GAUR EGUNGO EGOERAREN AZTERKETA:**

Gaur egungo egoeraren azterketa egiteko orduan, azken lau urteetan izan diren matrikulazio datuak hartu dira kontutan<sup>(2)</sup>. Horretarako ikasturtearen, bi momentu hartu dira erreferentzia gisa:

**1. Kurtso hasiera. Iraileko datuak:****IRAILEKO DATUAK: KURTSO HASIERA**

DATA	GIPUZKOA	BIZKAIA	ARABA	EAE
2012ko Urria	<b>2.250</b>	<b>2.475</b>	<b>1.252</b>	<b>5.977</b>
2016 Iraila bukaera	1.507	1.810	1.023	4.340
2017 Iraila bukaera	1.502	1.769	928	4.199
2018 Iraila bukaera	1.467	1.714	912	4.093
2019 Iraila bukaera*	1.548	1.875	934	4.375


**2016 Iraila bukaera:** %8,72ko jeitsiera 2014tik / %27,3ko jeitsiera 2012tik.

**2017 Iraila bukaera:** %11,6ko jeitsiera 2014tik / %29,74ko jeitsiera 2012tik.

**2018 Iraila bukaera:** %13,92ko jeitsiera 2014tik / %31,5eko jeitsiera 2012tik.

**2019 Iraila bukaera:** %8,37ko jeitsiera 2014tik / %26,80ko jeitsiera 2012tik.

\* 2019/01/01eko neurriak indarrean sartuta.




<sup>(2)</sup> Datuen jatorria: Haurreskolak Partzuergoa.

## 2. Apirileko datuak: haurreskolak beteen egoten diren momentua:

## APIRILEKO DATUAK: KURTZO AMAIERA


DATA	GIPUZKOA	BIZKAIA	ARABA	EAE
2017 Apirila bukaera	2.088	2.517	1.265	5.870
2018 Apirila bukaera	2.129	2.484	1.170	5.783
2019 Apirila bukaera*	2.119	2.503	1.171	5.793

\* 2019/01/01eko neurriak indarrean sartuta.



Grafiko hauetan ikus daitekeen moduan, **2012**ko erreferentzia kontutan hartzen badugu, argi ikusten da 2014an izandako jaitsierez geroztik, ez dela lortu 2012an zeuden matrikulazio datuetara itzultzea ez kurtso hasierako datuetan eta ezta kurtso amaierako datuetan. Kurtso hasieretako datuak kontutan hartzen baditugu, %25 eta %30 aren arteko matrikulazio jaitsiera mantendu da urtero. **2014**ko datuak kontutan hartzen baditugu, azken 4 urteotan, %10 inguruko izan da matrikulazioaren jaitsiera. Datu adierazgarriak dira inondik inora, erreflexio batetara eraman beharko gintuzketenak. Datu hauekin, ezin da esan inola ere, haurreskolen etorkizun ziurtatuta dagoenik. Aurrerago aztertuko ditugu zehatzago jaitsiera honen arrazoiak eta ondorioak.

Aipatutako jaitsiera hauen ondorioz, Haurreskolak Partzuergoaren sareak eskaintzen dituen **plazen** %32a hutsik gelditzen da. 2019ko apirileko datuak kontutan hartzen baditugu (haurreskolak beteen dauden unea), Momentu horretan, eskaintzen ziren, 8.506 plazetatik 5.793 bakarrik zeuden beteta.

**PLAZAK OROTARA 8.506**

Datu hauek aztertzen baditugu argi gelditzen da, Haurreskola eta Eusko Jaurlaritzak, 0-2 etapan garatzen ari den politikak erren gelditzen direla, prezioak altuak eta desorekatuak izaten jarraitzen dutela eta gizarteak eskatzen duen eta Haurreskolak Partzuergoaren estatutuetan aipatzen den kontziliazioa modu mugatu batean bakarrik ematen dela.

Erabiltzaileen beherakada honi, azken aldian ematen ari den, 0 urteko haurren matrikulazioaren jaitsieraren joera gehitu behar zaio. Geroz eta gehiago, familiek, haurra urtea betea duenean, matrikulatzen dute haurreskolan, 0 urteko plazak libre geldituaz. Joera honi, azken hilabeteetan, Jaurlaritzak hartu dituen zenbait politika gehitu behar zaizkio: aitatasun baimenaren luzapena....Erabaki hauek, bestelako helburuetan izan dezaketen eragina baloratzen hasi gabe (parekidetasuna, korresponsabilitatea...) argi dago haurreskola beraien etorkizuna are eta gehiago baldintzatzen dutela.

Datu hauek, **jaiotze tasak azken urtetan izan duen bilakaerarekin konparatzen** baditugu<sup>(3)</sup>, konturatutako gara, Haurreskolak Partzuergoko matrikulazioan izandako jaitsiera, portzentualki, jaiotzen tasak izan duen jaitsiera baino handiagoa dela. Horrela, 2012ko jaiotzak hartzen baditugu eta 2018ko ekainak 17ko datuekin konparatzen badugu, %21,6ko jaitsiera bat egon dela ikus dezakegu. Aldiz, 2012ko urriko amaierako matrikulazio datuak, 2018ko iraila bukaerako matrikulazio datuekin alderatzen baditugu, %31,5 jaitsiera bat dagoela konturatzen gara. Hau da, **matrikulazioan egon den jaitsiera, jaiotze tasari dagokiona baino handiagoa da.**

**ELAren proposamena:**

**Haurreskolak, unibertsalak, doakoak, euskaldunak eta kalitatekoak:** Eusko Jaurlaritzak eta Haurreskolak Partzuergoa garatzen ari diren politikak ez dira nahikoak helburu horiek lortzeko bidean.

Gogoratu beharrean gaude gainera azken hamarkadetakoa datuen baitan, Eusko Jaurlaritzak, hezkuntza aurrekontuan herrialde garatuenean bataz-beste bideratzen dutena baino 1,1 puntu gutxiago bideratzen dituela, hau da, proportzioan 733 milioi euro gutxiago, Europako herrialde garatuengandik oso urrun. Eta abiapuntua hau izanik, aurtengo Eusko Jaurlaritzaren hezkuntza aurrekontua 2009koa baino 63 milioi txikiagokoa dela.

Gure herrian, oraindik ez dago bermatua 0-2 urte arteko haurren heziketa, eta unibertsala eta doakoa izatetik oso urruti dago. Baliabide gutxi bideratzen da adin-tarte horretako hezkuntzarako, eta ez dira inondik ere nahikoa jendarte osoaren beharrei aurre egiteko eta benetako hezkuntza-proiektu bat garatzeko.

Ikus dezagun jarraian, Eusko Jaurlaritzak eta Haurreskolak Partzuergoak planteatutako **neurriek zein eragin izan duten:**


<sup>(3)</sup> Datuen jatorria: EUSTAT.

## HAURRESKOLAK PARTZUERGOA

– **Errenten araberako kuota sistema:** sistema hau martxan jarri zenetik (2015-2016 ikasturtea), kuoten arabera izan diren datuak honakoak izan dira<sup>(4)</sup>:


### 2017/04/25eko DATUEN ARABERA (EAE)

O KUOTA	KUOTA 1	KUOTA 2	KUOTA 3
0	707	592	4.591
%0,00	%12,00	%10,05	%77,95



### 2019/09/13ko DATUEN ARABERA (EAE)

O KUOTA	KUOTA 1	KUOTA 2	KUOTA 3
531	158	473	3.077
%12,53	%3,73	%11,16	%72,59



<sup>(4)</sup> Datuen jatorria: Haurreskolak Partzuergoa.

Datu hauek aztertuz gero, argi ikusten da azken 3 urteetan kuota tartean banaketa antzekoa izan dela gutxi gora behera:

1. kuota tartea: %12.
2. kuota tartea: %10.
3. kuota tartea: %77.

2019ko maiatzeko izen ematea pasa ondoren, 0 kuota tartean, haurren %12,53 dago eta 1, kuota tartean, haurren %3,73a. Bitartean, familien %72,84ak, 3. kuota tartean egoten jarraitzen du:

5 ordu arteko kuota: 160 €.

8 ordu arteko kuota: 208 €.

**Ondorioa** argia da beraz: Ez errenten araberako kuota sistemarekin eta ezta 2019 hasieran indarrean jarritako doakotasun neurriekin eta hobariekin, **ez da lortu irabazi gutxien dituzten familien matrikula kopurura handitzea**. Horrez gain, erabiltzaileen hiru laurdenak kuotarik altuena ordaintzen jarraitzen dute. Hauen zat, **prezioak altuak** izaten jarraitzen dute eta doakotasunaren neurriek, desoreka nabarmen bat suposatzen du kuota altuenak ordaintzen dituzten familiekiko.

Gogoratu dezagun, **beka sistema indarrean zegoenean**, hau da, 2014-2015 ikasturtera arte, %8a edo %10a inguru zirela bekaren bat jasotzen zuten familiak. 2012-2013 ikasturtean esaterako, eskatu zuten, 1.081 familietatik, 347 familiek lortu zituzten beka bidezko diru laguntzak. Orotara, onartutako beken zuzendutako diru kopurua, 289.000 €koa izan zen, batz bestea familia hauei 835 €ko diru laguntza eskainiaz<sup>(5)</sup>. Beraz, errenten araberako kuota sistema ezarri zenetik, hobariren bat jasotzen duten familien kopurua igo egin da %10 eta %15 tartean. Halere, aurrez esan dugun moduan, hobari hauek ezarzteak ez du matrikularen gorakadarik ekarri, irabazi horiek dituzten familien artean.

Honetaz gain, ezarritako kuota sistema honek **bestelako arazoak** ekarri ditu:

Familiek, izandako irabaziaz frogatzerakoan, irabazi gutxien dauzkaten familiak, askotan, atzerritarrak, paperik gabeak, errefuxiatuak, lanik egiten ez dutenak... izaten dira. Honek arazoak dakartza, beraien egoera justifikatzeko orduan, Ogasunak ez baititu beraien buruzko datuak izaten edo eskuratzeko zailtasunak izaten dituzte. Ondorioa; ezin dutenez beraien egoera frogatu, kuota tarte handiena egokitzen zaie eta bertan behera gelditzen da matrikula. Errenta estandarizatuaren dekretuaren arabera, 2 zerga urte atzerako datuak eskatzen zaizkie erabiltzaileei. Baldintza honek, are eta gehiago zailtzen die egoera ares-tian aipatutako familiei.

Gainera, errenten araberako kuota sistema ezarri zenetik, haurra haurreskolan sartzen denetik ateratzen den arte, kuota tartea finkoa mantentzen da. Honek, suposatzen du denbora tarte horretan, kuota tartea errebisatzeko aukerarik ez izatea nahiz eta beraien zerga datuak aldatu.

Kontutan hartu behar dugu, administrazioak bere eskuetan dauden datuak ez dauzkala eskatzaileak aurkeztu beharrik. Hau horrela izanda, Haurreskola Partzuergoak, beste administrazioekin daukan harremanak, sendotu beharko lituzke (adib. Ogasuna) gaur egun familiei ezartzen zaien betebeharrak bere gain hartzeko. Edozein kasutan, konponbide hau, konponbide partziala izango litzateke, oinarrian dagoen arazoak berdina izaten jarraituko lukeelako.

Horrez gain, jakin badakigu, zenbait udalek diru laguntzak eman izan dituztela eta ematen dituztela, haurreskoletako matrikulazioa handitzeko asmoarekin (adib.: Villabonako udala, Aizarnazabalgo udala, Zornotzako udala, Gautegiz-Arteagako udala (%50eko diru-laguntza), Mallabiko udala (%50eko diru-laguntza)... Honek, frogatzen du, familia askorentzat, haurreskoletako kuotak garestiak izaten jarraitzen dutela eta erakunde publikoen laguntza bilatzen dutela gastu horiei aurre egiteko.

Beraz, azken urteetako matrikulazioaren jaitsiera egiaztatu ondoren eta kuota sistemak berritzeko egingandako ahalegin desberdinek izan duten eragin eskasa ikusi ondoren, ELAk 2014. urtean aurkeztu zuen proposamena berresten du: **Haurreskolak Unibertsalak eta doakoak izan behar dira**.

<sup>(5)</sup> Datuen jatorria: 2013ko Urriaren 2ko galdera parlamentarioa. EH Bilduk egin du Haurreskolak Partzuergoko Beken inguruan.



## HAURRESKOLAK PARTZUERGOA

Orain arte aplikatu diren tarteko neurriek ez dute emaitza nahikorik ekarri eta doakotasuna ezartzeak lehentasuna izan behar du epe motzean haurreskolen etorkizuna bermatu eta langileen lanpostuak bermatu nahi badira. Modu honetan bakarrik lortuko da, azken urteetako matrikulazioaren jaitsierari aurre egitea eta urtean zehar hutsik gelditzen diren haurreskoletako plazak berriz ere betetzea. Horretarako Hezkuntza Sailak, Haurreskolak Partzuergora zuzendutako inbertsio publikoa handitzea ezinbestekoa da.

Planteamendu hau gauzatzea guztiz posiblea da eta gainera, **beste leku batzuetan** ere ematen ari da. Madrilgo Erkidego autonomoak esaterako, doakotasuna ezarri du 0-3 adin tarteko haurreskoletan 2019-2020 ikasturterako. Neurri hauek, ondorioak izan dituzte eta kurtso honetarako 1.442 haur gehiago matrikulatu dira (% 1,6ko igoera):

<http://www.comunidad.madrid/noticias/2019/04/09/comunidad-valida-decreto-gratuidad-escuelas-infantiles-publicas-0-3>

<https://www.20minutos.es/noticia/3754718/0/arranca-primer-curso-escuelas-infantiles-gratuitas-madrid/>

Errioxako haurreskoletan ere, doakotasunera bideraturiko neurriak hartu dira. Neurri hauek 2019-2020 ikasturterako ezarriko dira eta 2.800 haurri eragingo diote:

<http://noticiasdelarioja.com/la-gratuidad-de-las-guarderias-se-hara-con-un-bono-infantil-a-los-centros/>

<https://www.larioja.com/la-rioja/2800-ninos-riojanos-20190510120354-nt.html>

Andaluzian ere, datozen urteetan, 0-3 etapa doakoa izan dadin neurriak hartzen hasiak dira:

<https://www.elmundo.es/andalucia/2019/04/02/5ca347fcfdff005d8b4581.html>

## HAURRESKOLAK PARTZUERGOKO ENPLEGUAREN AZTERKETA:

Ikus dezagun azken 4 urteetan, hezitzaileen kontratazio kopuruak izan duen bilakaera.

### 1. Kurtso hasiera. Iraileko datuak:

#### KONTRATAZIOEN BILAKAERA / AZKEN 4 URTEAK IRAILEKO DATUAK: KURTZO HASIERA


DATA	GIPUZKOA	BIZKAIA	ARABA	EAE
2012ko Urria				<b>1.347</b>
2014ko Urria				<b>1.234</b>
2016/09/01	419	479	237	1.135
2017/09/01	427	507	244	1.178
2018/09/01	413	489	249	1.151
2019/09/01	423	523	236	1.182

**2016/09/01:** %8ko jeitsiera 2014tik / %15,7ko jeitsiera 2012tik.

**2017/09/01:** %4,5eko jeitsiera 2014tik / %12,5eko jeitsiera 2012tik.

**2018/09/01:** %6,7ko jeitsiera 2014tik / %14,5eko jeitsiera 2012tik.

**2019/09/01:** %4,2ko jeitsiera 2014tik / %12,7ko jeitsiera 2012tik.




### 2. Apirileko datuak. Haurreskolak beteen egoten diren momentua:

#### APIRILEKO DATUAK: KURTZO AMAIERA

DATA	GIPUZKOA	BIZKAIA	ARABA	EAE
2016/04/30	578	650	325	1.553
2017/04/30	557	668	309	1.534
2018/04/30	588	735	321	1.644
2019/04/30*	581	708	319	1.608

\* LABek akordioa sinatu ondoren.

## HAURRESKOLAK PARTZUERGOA




Gaur egungo datuak aztertzen baditugu, haurren matrikulazioarekin gertatzen zen moduan, kontratatzen gara, 2014 urtean izan zen kontratazioen jaitsiera bere horretan mantentzen dela eta gainera behera egin duela.

Orotara, 1.182 kontratazio egin dira, **2019-2020 ikasturteko kurtso hasieran**<sup>(6)</sup>, 2012an baino 165 gutxiago eta 2014an baino 52 gutxiago. Horrez gain, kurtso hasiera honetan, behin-behinekotasun tasak ere bere horretan jarraitzen du.




EAEko datuak aztertzen baditugu, egin diren 1.182 kontratazio horietatik, 704 Behin Betikoak dira, 325 LEP artekoak eta 153 ordezkapen kontratuak dira. Datuak, portzentailetara eramanda, %59,56 Behin Betiko kontratuak dira, %27,50 LEP arteko kontratuak eta %12,94 Ordezkapen kontratuak. Hezitzaileen egoera honi, Kudeaketa Langileen egoera larria gehitu behar zaio. Kasu honetan, langileen %100 Behin Behinekoak izaten jarraitzen dute. Beraz, azterketa honek, argazki oso kezkarri batetara eramaten gaitu, non plantila osoaren %40 baino gehiagok Behin-behineko kontratua duen. Benetan, datu kezkarri eta onartezina benetako hezkuntza proiektua eta kalitatea bermatu nahi bada. Kontutan hartu behar dugu gainera, kurtso hasierako datu hauek, kurtso amaieran alderantzizkoak izatera iristen direla, langileen %40a finkoak izanik eta %60a behinenekoak.

### Kontratazioak EAEn 2019-2020 kurtso hasieran



<sup>(6)</sup> Kontratazioak EAEn 2019-2020 kurtso hasieran.

**KONTRATAZIOAK LURRALDEKA. Data: 2019/09/04**



Behin Behin-behinekotasun tasa kezkarri hauetaz aparte, azken urteetan bestelako arazoak sortu dira bi bai hezitzaileentzat eta baita kudeaketa arloko langileentzat:

**Ratioen azterketa:**

Plantilak ez dira ratio irizpide egoki eta bateratuekin egituratzen. Haurreskola bakoitzari lanpostuak egokitzerako orduan haurreskolako hezitzaile-ratio irizpide ezberdinak erabiltzen dira. Ondorioz, inolako irizpide objetiborik gabe haurreskola batzuei hezitzaile-ratio irizpide batzuk aplikatzen zaizkie eta beste batzuei beste batzuk.

ELAren ustez lan-kargak arindu, hezkuntza proiektua bermatu, zerbitzuaren kalitatea hobetzeko, **hezitzaile-ratio irizpide egoki eta bateratuak finkatu eta aplikatu behar zaizkie haurreskola guztiei**. Hau horrela eginez gero, lanpostuak mantendu edo handitzeko aukera ahalbideratuko litzateke. ELAk ondorengo gutxieneko irizpideak proposatzen ditu:

0-1			1-2			Koordinatzaileak	
Gelak	Haurrak	Hezitzaileak	Gelak	Haurrak	Hezitzaileak	Gelak	Koordinatz.
1	1-8	2	1	1-8	2	1	0,5
2	16	4	2	14	2,5	3	0,5
3	24	6	3	27	4,5	6	1
4	30	8	4	40	6,5	10	1,5
			5	53	9		

2019/09/13ko datuak (kurtso hasiera) kontutan hartuaz<sup>(7)</sup>, egindako azterketaren arabera, 36 haurreskoletan ez lirakeke, ratio hauek beteko. Dena den, kontutan hartu behar dugu azterketa hau egiterakoan ezin izan dugula jakin kontratatutako hezitzaileen jarduna zenbatekoa den (osoa edo partziala).

Gainera, haurreskola txikietan batez ere, lehengo eta azken orduetan, hezitzaileei bakarrik egotea tokatzen zaie, kasu askotan, 4 haur baino gehiagorekin geldituaz. Beraz, ratioz gain egoteari, bakarrik gelditzeak dakarren arriskua gehitu behar zaio. Kasu hauetarako, ratioen irizpidea gainditzen den momentuan, bigarren hezitzailea jartzea eskatzen du ELAk. Horrez gain, langilea bakarrik dagoen momentu horietan, arrisku egoerak saihesteko konponbide bat bilatzea beharrezkoa ikusten dugu.

Aurrez aipatu dugun kontratazioen murrizketari, matrikulazioaren jaitsierak eragin duen **lanpostuen mugikortasuna eta haurreskolen jaitsiera** gehitu behar zaio. Momentu jakin batean haurreskoletan dagoen haur kopuruaren arabera, hezitzaileak desplazatuak izaten dira haurreskola batetik bestera. Aurtengo kurtso hasieran esterako, Partzuergoak korreo elektronikoko bide jakinarazi die hainbat langilero haurreskolaz desplazatuak izango direla egun batetik bestera. Mugikortasun honek dakarren **ziurgabetasun egoerarekin amaitu behar da**, eta desplazamenduak egin behar badira, aurreikuspen nahikoaz jakinarazi behar zaie langileei. Ordezkoen kasuan, ordezkatzen duten titularrak mugitua baldin bada, bera era mugitua izango denez, kontratu hori eskaintzerakoan, titularraren egoera zein den jakinarazi beharko litzaioke.

**Lanpostu Zerrenda (RPT-LPZ) ez dator bat plantila egonkorrekin:**

Haurreskola bakoitzeko lanpostu egonkorak finkatu eta antolatzea helburu duen Lanpostu Zerrenda ez dator bat ikasturterako egonkortzat eman daitezkeen lanpostu errealekin (behin-betiko kontratudun langileak eta LEP arteko kontratudun langileak). Haurreskolak Partzuergoak emandako datuen arabera, 2016, 2017, 2018 eta 2019 ko LPZ proposamenetan, 1136 hezitzaile izango lirakeke LPZ hori osatzen duten hezitzaileak. Halere, kopuru horretatik aparte, 2019ko azken LPZ proposamenetan, beste 87 hezitzaile daude inongo zerrendan agertzen ez direnak. Hezitzaile horietatik, 14 Arabakoak izango lirakeke, 38 Bizkaikoak eta 35 Gipuzkoakoak. Beraz, 2019 urterako egonkortzat eman ditzakegun plantilak, Lanpostu Zerrenda ofiziala baino handiagoak dira. Ondorioz, LPZ honetan, 87 lanpostu gehiago azaldu beharko lirakeke.

<sup>(7)</sup> Datuen jatorria: Haurreskolak Partzuergoa.

**Kudeaketa langileen egoera:** azterketa honetan, kudeaketa langileen errealitatearen aipamenak, atal propioa beharko lukeen arren, kolektibo honen ezaugarri garrantzitsuenak azaltzen saiatuko gara:

- Plantilaren %100a Behin Behinekoa da.
- Ez dute LPZarik.
- Lan berdina egiten duten Hezkuntzako langileekiko soldata arrakala handiak dituzte.
- Urte luzetan zehar, ordezkapen araudirik gabe eta ordezkapenak betetzeko lan poltsa propiorik gabe egon dira. Egoera honetan, kasu askotan, baja edo hutsuneak ez ziren ordezkatzeko edo espresaren diskrezionaltasunaren arabera erabakitzen zen noiz ordezkatu eta noiz ez.

Azken urte honetan, langileek burututako mobilizazioen ondorioz, negoziazio bat martxan jartzea lortu da eta aurrerapauso batzuk eman dira. Halere, momentuz ez dago inolako akordio ofizialik eta enpresak adostutako epeak behin eta berriz atzeratzen jarraitzen du. Egoera honen aurrean, ELAk behin eta berriz eskatu du mahai negoziatzailea bildu dadila, adosteko falta diren puntuak negoziatu ditzala eta hartutako erabakiak indarrean jartzeko beharrezko pausoak burutu ditzala (Eusko Jaurlaritza eta Funtzio Publiko-arekin hitz eginez).

Egoera orokor honen aurrean, ELAk egiten duen **proposamena argia da:** Behin-behinekotasun eta ziurgabetasun egoera honekin amaitu behar da. Enpresak banatutako datuen arabera, momentu honetan, 2019ko LPZ proposamenean, 334 hezitzailek LEP arteko kontratua daukate. Kopuru honi, LPZan agertzen ez diren baina egonkorak diren 87 horiek batu beharko litzazkioke, beraz,  $334 + 87 = 421$  lanpostu.

Gure proposamena, Behin-behinekotasun tasa %6ra jaistea litzateke. Horretarako LEP deialdi bat egin beharko litzateke eta modu horretan, 395 lanpostu, Behin Betiko bihurtuko lirateke.

395 lanpostu hauei, kudeaketa arloko lanpostuak batu behar zaizkie. Kasu honetan, LPZ onartu eta datozen 3 urteetan, lanpostu guzti hauek finkatu beharko lirateke, kontsolidazio LEP prozesu baten bitartez.

Horrez gain, lanpostuen inguruko benetako politika bat finkatu behar da eta unean uneko inprobisazioarekin amaitu behar da. Hurrengo urteetan, jarraituko diren prozedurak eta jarduteko moduak finkatzea ezinbestekoa da idatziz eta adostuta.

### **ONDORIO OROKORRAK ETA ELA-REN PROPOSAMENA:**

- Azken urteetan izandako matrikulazio datuek argi azaltzen dute, matrikulazioaren kopurua beherantz joan dela eta ez dela lortu garai batean zeuden matrikula kopuruetara itzultzea.
- Matrikulazioaren jaitsiera hau hiru lurraldeetan (Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia) eta kurtso hasiera eta bukaeran mantentzen da.
- Erabiltzaileen beherakada honek, haurreskoletako plazen %30a baino gehiago hutsik geratzea dakar.
- Jaitsiera hau, jaiotze tasarekin konparatzen badugu, proportzioan, matrikulazioan izandako jaitsiera, jaiotzetan izandakoa baino altuagoa da.
- Azken urtetan E.J.-ak eta Haurreskolak Partzuergoak proposatutako neurriek (errenten araberako kuotak, doakotasun neurriek...) ez dute matrikularen igoerarik ekarri eta erabiltzaileen %75 inguruak kuota altuegiak ordaintzen jarraitzen dute.
- Matrikulazioaren beherakada honek, ondorio kezagarriak izan ditu kontratazioaren jaitsieran eta langileen lan baldintzetan.
- Horrez gain, plantilaren behin-behinekotasun tasak onartezinak dira, kurtso hasieran %40kaok izanik eta kurtso amaieran %60ra iritsiaz.
- Behin-behinekotasun portzentaila handienak Bizkaian daude eta txikiak Gipuzkoan.
- Haurreskola guztietan ez dira ratio irizpide berdinak erabiltzen.
- Matrikulazioan izandako jaitsierak, ondorio kaltegarriak izan ditu langileen lan baldintzetan, langileak haurreskola batetik bestera desplazatuaz eta haurreskolak istera behartuaz.

## HAURRESKOLAK PARTZUERGOA

- Lanpostu Zerrenda, ez dator bat plantila egonkorrarekin.
- Kudeaketa langileen behin behin-behinekotasun egoerarekin amaitu eta lan baldintzak erregulatu behar dira horretarako beharrezko araudiak negoziatuz.

### **ELAren proposamena. Haurreskolak Unibertsalak eta doakoak izan behar dira:**

Badaude alternatibak borondate politikorik badago. 0-2 adin tarteko hezkuntzak, etorkizuna ziurtatuta izan dezan eta haurreskolak eta bertako langileen lanpostuak mantendu daitezten, ezinbestekoa da inbertsio publikoa handitzea. ELAk Haurreskolak, Hezkuntza proiektuaren barruan ongi txertatzea eskatzen du, 0-2 urteko tarreak benetako hezkuntza planteamendu bat izan dezan eta honen baitan, unibertsala eta doakoa izan dadila, nahi duten familia guztiek eskura izan dezaten.

Doakotasunak lehentasun bat izan behar du agenda politikoa. Ikusi berri dugu, azken urteetan ezarri diren tarteko neurriek ez dutela lortu matrikulazioa igotzea eta honek, Haurreskolak Partzuergoaren etorkizuna kolokan jartzen duela hezitzaile askoren lanpostuekin batera.

Horrez gain, langileen lanpostuak eta zerbitzuaren kalitatea bermatu nahi badira, benetako enplegu politika bat finkatu behar da. Horretarako ezinbestekoa da, ziurgabetasun egoerarekin amaitu eta Behin Behin-behinekotasun tasa %6ra jaisteko LEP prozesu bat martxan jartzea.

Duela bost urte esaten genuen moduan, aukera hau posiblea da eta guztiz gauzagarria. AHT-aren kilometro erdi baten inbertsioa egitea eskatzen genuen orduan. Kuota bidezko diru sarrerek urteko 12 milioi € inguru suposatzen dute garai hartan. Hau da, AHT-an gastatzen den kilometro erdi baten inbertsioa haurreskoletan inbertituko balitz, hauek doakoak izango lirakeela aldarrikatzen genuen. 2018. urteko Haurreskolak Partzuergoren diru sarreren, aurrekontuaren likidazioa aztertzen badugu<sup>(8)</sup>, familiek ordaindutako kuotek, 10.873.785 €ko kopurua suposatu zutela ikus dezakegu.

Era berean, 2018-2019 ikasturterako Hezkuntza Sailak, Haurreskolak Partzuergoan 4,5 milioi € inbertitu dituela kontutan hartuaz, Haurreskolak Partzuergoaren zerbitzuren doakotasunaren finantziarioari begira, doakotasun osoa lortzeko faltako litzatekeen kopurua are eta txikiagoa izango litzateke. Beraz, Hezkuntza Sailari eskatzen diogu ahalegina egin dezala inbertsio publikoa handitzeko, modu honetan haurreskolen eta bertako langileen etorkizuna bermatu ahal izateko.

Ikusi dugu beste leku batzuetan hasiak direla, doakotasunaren inguruko neurriak hartzen eta honek ondorio positiboak izan dituela matrikulazioari begira. Beraz, beste lekuetan egin badute eta posible baldin bada, hemen zergatik ez?

*Euskal Herrian, 2019ko abenduaren 3an*

<sup>(8)</sup> Datuen jatorria: [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus) Irekia. Haurreskolak Partzuergoa. Auditoria txostena eta urteko kontuak.

**Izena:** ..... **NAN/EIZ:** .....

Nombre

DNI/NIE

**1. abizena:** ..... **Emakumezkoa**

1º apellido

Mujer

**2. abizena:** ..... **Gizonezkoa**

2º apellido

Hombre

**Helbidea:** .....

Dirección

**Herria:** ..... **Posta kodea:** .....

Localidad

CP

**Herrialdea:** .....

Provincia

**Jaioteguna:** .....

Fecha de nacimiento

**Jaiotze herrialdea:** .....

Lugar de nacimiento

**Telefonoa:** ..... **Mugikorra:** .....

Teléfono

Movil

**E-posta:** .....

E-mail

**Banku edo Aurrezki Kutxa:** .....

Banco o Caja de Ahorros

**IBAN zenbakia** (banku kontua): ..... / .....

Nº IBAN (cuenta bancaria):

**Lantokia:** .....

Empresa

**Enpresaren G.S. ko zenbakia:** .....

Nº Seg. Social de la empresa

**Helbidea:** .....

Domicilio

**Herria:** .....

Localidad

**Lanbidea:** .....

Profesión

**Kategoria:** .....

Categoría

**Lan-hitzarmena:** .....

Convenio

**Sindikatuak  
betetzeko**  
A rellenar por el sindicato

**Kuota mota:**  
Tipo de cuota

**Arduraduna:**  
Responsable



## DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIO-POLITIKA / POLÍTICA INFORMATIVA EN PROTECCIÓN DE DATOS PERSONALES

**ELA-EUSKAL SINDIKATUA**k jakinarazten dizu datu pertsonalak afiliazio-eskaria kudeatzeko eta afiliatuarekin harremana izateko tratatzen direla, oinarritzat hartuta sindikatu bateko uneko edo izandako kideen datu-tratamendua, DBAOaren 9.2.d) artikulua arabera. Zure datuak ez zaizkio beste inori emango, bi kasutan salbu: betebeharrak legal baten ondorioz edota errenta aitortzean sindikatuari ordaindutako kuoten kenketa fiskala kudeatu ahal izateko, DBAOaren 9.1 artikulua baitan. Zure datu pertsonalen tratamenduaren inguruko eskubideak gauzatzeko eskaria bidal dezakezu honako helbidera: **dbo@ela.eus** . Datuen tratamenduari buruzko informazio gehiago duzu **www.ela.eus** webgunearen pribatutasun atarian.

**ELA-EUSKAL SINDIKATUA** le informa de que los datos personales son tratados para gestionar la solicitud de afiliación y mantener una relación con la persona afiliada, basado en el tratamiento de datos referido a miembros actuales o antiguos de una organización sindical, en base al art. 9.2.d) RGPD. Sus datos no serán comunicados a terceros salvo en cumplimiento de una obligación legal o con su consentimiento para posibilitar la deducción fiscal en la declaración de la Renta de las cuotas satisfechas al sindicato, en base al art 9.1 RGPD. Puede ejercer los derechos vinculados al tratamiento de sus datos personales enviando su petición a **dbo@ela.eus** . Tiene a su disposición información adicional sobre este tratamiento de los datos en el portal de privacidad del sitio **www.ela.eus**

**Pribatutasun politika** irakurri eta ulertzen dut.  
He leído y comprendo la **política de privacidad**.

ELAk nire datu pertsonalak Foru Ogasunari helaraztea, Errenta aitortzean ordaindutako kuoten kenketa fiskala egin ahal izateko:

Que mis datos personales sean comunicados por ELA a la Hacienda Foral para posibilitar la deducción fiscal de las cuotas satisfechas al sindicato en la declaración de la Renta:

**BAIMENTZEN DUT**  
AUTORIZO

**EZ DUT BAIMENTZEN**  
NO AUTORIZO

### HELBIDERATZEA / DOMICILIACIÓN

**Helbideratzeko aginduaren eskabide-orria sinatuz gero, batetik ELAri baimena emango diozu bere finantza-erakundeari zorduntzeko aginduak bidal diezaizkion, eta bestetik, finantza erakundeari, ELAren jarraibideen arabera kasuan kasuko zenbatekoak kontuan zordundu ditzan.**

**Zure eskubideak kontuan hartuta, eskubidea duzu finantza-erakundeak itzulketa egin diezazu berarekin sinatutako kontratuko baldintzen arabera. Itzulketa hori zortzi asteko epean erreklamatu beharko duzu, zure kontuan zordundu zen egunetik hasita.**

Mediante la firma de esta orden de domiciliación, el deudor autoriza a ELA a enviar instrucciones a la entidad del deudor para adeudar su cuenta y a la entidad para efectuar los adeudos en su cuenta siguiendo las instrucciones de ELA.

Como parte de sus derechos, el deudor está legitimado al reembolso por su entidad en los términos y condiciones del contrato suscrito con la misma. La solicitud de reembolso deberá efectuarse dentro de las ocho semanas que siguen a la fecha del adeudo en su cuenta.

**BAIMENTZEN DUT**  
AUTORIZO

**EZ DUT BAIMENTZEN**  
NO AUTORIZO

**Izen abizenak**  
Nombre y apellidos

**NAN:**  
DNI:

**SINADURA**  
FIRMA

**DATA:**  
FECHA:

**ELA**  
EUSKAL SINDIKATUA



# EGOITZAK

## **Bilbo**

Barrainkua 13  
Tel.: 94 403 77 00  
Fax: 94 403 77 11

## **Donostia**

Consulado 8, behea  
Tel.: 943 00 50 00  
Fax: 943 00 50 01

## **Gasteiz**

Manuel Iradier 25  
Tel.: 945 15 80 76  
Fax: 945 14 10 74

## **Azpeitia**

Arana Goikoa 1-2-3,  
Tel.: 943 81 34 46  
Fax: 943 15 09 57

## **Basauri**

Antonio Fernández z/g  
Tel.: 94 405 58 88  
Fax: 94 405 58 68

## **Eibar**

Bidebarrieta 30, behea, 1.  
Tel.: 943 82 04 42  
Fax: 943 82 06 12

## **Barakaldo**

Gernikako Arbola 35-38  
Tel.: 94 418 02 96  
Fax: 94 418 93 17

## **Tolosa**

San Francisco Ib. 13  
Tel.: 943 69 83 14  
Fax: 943 69 82 41

## **Areeta**

Areetako etorbidea 2  
Tel.: 94 602 04 50  
Fax: 94 602 04 20

## **Irun**

Paseo Colón 27, 1.  
Tel.: 943 63 84 70  
Fax: 943 63 84 71

## **Durango**

Askatasun Etorbidea 5  
Tel.: 94 621 76 80  
Fax: 94 621 76 81

**ELA**  
EUSKAL SINDIKATUA

[ela.eus](http://ela.eus)

